



21/22 IKASTURTEAN
IKASTETXEETAN COVID-19AREN
AUR-REAN JARDUTEKO PROTOKOLO
OROKORRA







AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. HELBURUA
3. OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRIAK
 - A) Harremanak mugatzea.
 - B) Prebentzio pertsonaleko neurriak.
 - C) Garbiketa eta aireztapena.
 - D) Kasuen kudeaketa.
4. ERANSKINAK



1.- Sarrera

Ondoren aurkezten diren 2021-2022 ikasturterako neurriak diseinatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: egungo egoera epidemiologikoa (ikasturte-amaiera); COVID-19ren aurkako txertaketa-estrategia; eskura dagoen ebidentzia zientifikoaren berrikuspena eta bidean ikasitako ikasgaiak; ikastetxe irekita izateko beharraren inguruko adostasuna, horrek haurren eta nerabeen osasunean, ongizate emozionalean, ekitatean eta hezkuntza-mailan duen eraginagatik; eta, batez ere, zurrak delako hori lor daitekeela, ikasturte honetan zehar arrakastaz egin baita.

2.- Helburua

Protokolo Orokor honen helburua antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibideak ezartzea da, ikasturte hasieran nahiz ikasturtean zehar gertatzen den edozein egoerari behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

3.- Oinarrizko prebentzio-neurriak

Metatutako ebidentzia zientifikoak erakusten digu SARS-CoV-2 pertsonatik pertsonara transmititu daitekeela hainbat bideetatik. Horietan nagusia da, pertsona gaixo batek igorritako arnasketa-aerosolak edo tamaina handiagoko partikulak beste pertsona zaurgarri batengana iristea, ukituz edo goiko nahiz beheko arnasbideen bidez. Sortutako aerosolen kontzentrazioa eta tamaina garatutako jardueraren arabera da: minimoa da arnasa lasai hartzean, eta gero eta handiagoa berriz, hurrenkera honetan, ahapeka hitz-egitean, ozen aritzean, garrasi egitean, abestean, eztul egitean eta jarduera fisiko biziak egitean.

Kutsatzea zeharkako kontaktuaren bidez ere gerta daiteke, gaixoaren arnas jariakinekin kutsatutako esku edo objektuek arnas bideetako mukosekin eta pertsonen konjuntibarekin (begiko mintza) kontaktua izatean.

Ikastetxeetan, COVID - 19ren aurreko prebentzioaren, higienezaren eta osasunaren sustapenaren oinarrizko printzipioak honako hauetan egituratzen dira:

- A) Kontaktuak mugatzea.
- B) Prebentzio pertsonaleko neurriak
- C) Garbiketa eta aireztatpena
- D) Kasuen kudeaketa

Jarraian aipatzen diren neurri guztiak alda daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aurreko ikasturteko protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

A.- Kontaktuak mugatzea:

1.- **Langile eta helduen arteko interakzioetan**, 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia mantenduko da ahal den heinean ikastetxearen barruan. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da, distantzia edozein dela ere.



2.- Era berean, oro har; 1,5 metroko pertsonarteko distantzia mantenduko **da ikasleen artean**, ikastetxean barrena mugitzen direnean edo gelatik kanpo daudenean.

3.- **Ikasgela barruko** taldeen antolamenduari dagokionez, honako hau ezartzen da: ahal den guztietan, pertsonen arteko gutxienez 1,5 metroko distantzia mantenduko da. Errepikatzen dugu, ahal den heinean beti ere.

B.- Prebentzio pertsonaleko neurriak

1.- Ikasleei higieneari eta portaerari buruzko **prebentzio-neurriak gogorarazteko saiok** egiten jarraituko da, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta, neurriak lasaitzea saihesteko.

2.- Ez da beharrezkoa izango tenperatura hartzea lanaldiaren hasieran. Norberaren erantzukizunari helduz, **etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da**, ikastetxera joan aurretik, eta ez dira joango sukarra (>37º) eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.

3.- **Ez dira ikastetxera joango** COVID-19 diagnostikoaren bidez isolatuta dauden ikasleak edo langileak; ezta etxean berrogeialdian daudenak ere, sintomak dituen edo COVID-19 diagnostikatuta duen pertsona batekin harreman estua izateagatik.

4.- Sarreran eta irteeran **pilatzeak saihestuko da**. Horretarako honako gomendioa jarraitzea eskatzen da; sarrera irteera mailakatuak egitea.

5.- Maskararen erabilera: Arau orokor gisa, nahitaez erabili beharko dute ikastetxeko langile eta ikasle guztiek.

- a) Ikasleen kasuan, maskara higienikoa izango da gutxienez, eta dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu.
- b) Irakasleen kasuan, maskarak dagokion ziurtagiria eta homologazioa izan beharko ditu, eta dagokion prebentzio-zerbitzuak gomendatutako motakoa izango da; ikastetxe publikoen kasuan, 2020ko irailaren 18ko zirkularrean agertzen da horri buruzko informazioa. (kirurgikoak, eta haurdun daudenen kasuean edo TES direnen kasuan, FFP2 motetakoak)
- c) Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.
- d) Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili beharko da eta pertsonen artean dagokion distantzia mantendu beharko da.
- e) Ahal den guztietan, ikasleek aire zabaleko espazioetan egingo dute hamaiketako, segurtasun-distantziari eutsiz, eta berehala jantziko dute berriro maskara. Salbuespen gisa bakarrik (eguraldia edo espazio-arazoak direla eta) ikasgela barruan jango da, eta, horretarako, ahalik eta aireztapen handiena bermatuko da.
- f) Araudian araututako salbuespenen batengatik maskararik erabili ezin duten ikasleen kasuan, salbuespen hori medikuaren ziurtagiri ofizialaren bidez edo Osakidetzako dagokion medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da. Kasu horietan, ikasle horiek ezin izango dira gainerako taldekideekin elkarreraginean aritu, eta prebentzio- eta higiene-neurriak areagotuko dira, eta ez dira aplikatuko aurreko puntuan distantzien eta



kontaktu-mugen inguruan deskribatutako erlaxazioak.

- g) Eskuetako higieena maiz egingo da (Ikastetxearen sarrera-irteeretan, jolas-ordu aurretik eta ondoren, bazkaldu eta komunera joan ondoren). Ahal de neurrian, eskuen higieena ura eta xaboiarekin egitea gomendatzen da, gel hidroalkoholokoaren aurretik.
- h) Sudurra, begiak eta ahoa ez ukitzea gomendatzen da, eskuek kutsatzea errazten baitute.
- i) Eztul edo doministiku egitean, ez kendu maskara, eta estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta.
- j) Mukiak kentzeko erabili eta botatzeko zapiak erabili behar dira, eta erabili ondoren poltsadun paperontzi batera bota, ahal dela estalki eta pedalarrekin, ondoren eskuetako higieena eginez.

6.- Ikastetxeko espazio komunetan **pertsonak elkartzea saihestuko da**, pertsonen arteko distantzia eta maskara jantzita mantenduz.

7.- Ebaluazio-bilerak eta, oro har, irakasleen bilera guztiak telematikoki egiteko gomendioari eusten zaio, baina aurrez aurre **egin ahal izango dira**, betiere pertsonen arteko distantzia eta higieen- eta aireztapen-neurriak gordez. Dena den, edukiera- edo aireztapen-arazoak izanez gero (distantzia edo aireztapen desegokia mantentzeko ezintasuna), ikastetxeko beste edozein gunetatik parte-hartze telematikoa sustatu beharko da.

C.- Garbiketa eta aireztapena:

1.- Garbiketa eta desinfekzioa, **gutxienez egunean behin**, eta indartu egingo da erabilera-intentsitatearen arabera beharrezkoa den gunetan, adibidez, komunetan. Komunetan, egunean 2-3 aldiz izango da gutxienez, ohiko erabileraren eta erabiltzaile- kopuruaren arabera.

2.- **Arreta berezia** jarriko zaie erabilera komuneko guneei eta ukipen-gainazal ohikoenei, hala nola ate, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, pertxa eta antzeko beste elementu batzuei.

3.- Garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak langileen eremu pribatuetara ere **zabalduko dira**, hala nola atsedeenlekuetara, aldageletara, armairuetara, eta komunetara.

4.- **Ikasgeletan**, nahikoa izango da garbiketa egunean behin egitea, altzariak barne (mahaiak eta bestelako kontaktu-gainazalak, etab.).

- Ikasgeletan, jantokian edo beste gune batzuetan **txandak ezartzen badira**, ikasleak aldatzen direnean, txanden arteko garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena egingo da.

5.- Era berean, **lanerako partekatzen diren postuak** garbitu eta desinfektatu egingo dira txanda-aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, eta arreta berezia jarriko zaie altzariari eta manipulatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituztenei. Erabilera partekatuko ordenagailu bat erabiltzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala desinfektatuko da.

6.- **Desinfektatzeko**, lixiba diluzioa (1:50) erabiliko da, prestatu berria, edo Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako biruzida-jarduera duten desinfektatzaileetako edozein. Produktu horiek erabiltzean, beti errespetatuko dira



etiketen jarraibideak, eta saihestu egingo da ikasleek produktu horiek ukitu edo erabiltzea.

7.- **Garbiketa eta desinfekzio bakoitzaren ondoren**, erabilitako materialak eta babes-ekipoak modu seguruan botako dira, eta gero eskuak garbituko dira.

8.- **Paperontziak garbi izatea zaindu behar da**, garbi eta bertan jasotako materialak ondo bilduta, ustekabeko kontakturik ez izateko.

9.- Ikastetxeko **espazioen aireztapenari dagokionez**, aerosolen bidez SARS-CoV-2 transmititzeari buruzko ebidentzia zientifiko berriak beharrezkoa egiten du **aireztapenaren garrantzia nabarmentzea** eta horri lotutako gomendio batzuk indartzea. (IKUS III. ERANSKINA)

D.- Kasuen Kudeaketa.

1. Ikastetxeetako kudeaketa.

1. Ikastetxe bakoitzean erreferentziazko arduradun bat izendatuko da COVID-19rekin lotutako gaietarako (Esther Zala eta Zuzendaria). Era berean, ESI bakoitzean erreferentziazko pertsona bat izango da dagozkion ikastetxeekin komunikatzeko. Jakinarazpen hori baieztatutako positiboen kasuan baino ez da egingo.
2. Halaber, gomendatzen da etengabeko harremana izatea ikastetxearen eta hezkuntza- administrazioaren artean, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren bidez, **Hezkuntza Saileko Jarraipen Batzorde Nagusiaren** koordinatzaile gisa, egoeren berri emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak koordinatzeko.
3. **Kontaktuak azkar eta errazago arakatu ahal izateko** eta azterketa eta jarduera errazteko, Zaintza- eta Miaketa-sarearekin lankidetzan jardungo da, eta honako informazio hau jasoko da, ESletako erreferenteekin eta Zaintza-sarearekin adostutako formatuan:
 - Bizikidetzat talde egonkor bakoitzeko ikasleen zerrenda.
 - Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bertan duten kokalekua edo non esertzen diren (Bigarren Hezkuntzatik aurrera), egiten diren jardueren arriskuaren balorazioa (kontaktu edo hurbiltasun handiagoa duten tailer edo praktikan parte hartzea), eta haien harremanetarako telefonoak (mugikorra) eta posta elektronikoa, azkar jarduteko, eta kasuren bat agertuz gero harreman estuak lortzea erraztuko duen informazio guztia. **Horretarako, ikasleei eta haien familiei buruzko datuak eguneratu behar dira matrikula-aplikazioan (Ikasgunea).**
 - Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda.

Ikastetxeko langileek uneoro zaindu beharko dute susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen nortasunaren eta datuen tratamendu konfidentziala.

2. Kasuen kudeaketa

1. **Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak**, izan ikasle, irakasle edo bestelako langileak, ez eta COVID-

19ren diagnostikoagatik isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.

2. Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:

- a. Horretarako berriaz prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jantzita). Gela horrek higiene- eta aireztapen-neurri egokiak izango ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Halaber, IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI abisatuko zaio, eta hark dagokion dagokion arlo medikoari jakinaraziko dio.
- b. Ikaslea bada, lagun egiten dion pertsonak distantzia-neurriak gordeko ditu eta maskara kirurgikoa erabiliko du. Artatzen duen pertsonak FFP2 maskara erabiliko du.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo COVID arduraduna familiarekin harremanetan jarriko dira, ikaslea etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da argibideak jarraitzeko.
- e. Hezkuntza Saileko langilea bada, isolatu egingo da (maskara kirurgikoarekin), eta etxera joango da zentroko zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Azken hau Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da berehala.
- f. Eraginpeko pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean isolatuta** egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte.
- g. **Kasuaren emaitza diagnostikoa eskuratu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz.** Kasua berresten bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-eremuan zein hezkuntza-eremutik kanpo, **kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.**

3. Kasua konfirmatuko balitz:

- a) Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen gurasoek edo legezko tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESiarekin harremanetan jar dadin. Azken hau, lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da beharrezko denean. Alta jasotzen denean ikastetxeari jakinaraztea eskatuko genuke.
- b) Ikasleen artean baieztatutako kasu positiboen **kudeaketa** ikastetxeko **Zuzendaritzak koordinatuko du, COVID arduradunarekin eta dagokion ESiko erreferentziazko pertsonarekin** batera. Azken horiek, Osasun Publikoarekin koordinatuta, ikastetxeari adieraziko dizkiote **jarraitu beharreko jarraibideak.**
- c) Kasu hauetan, hezkuntza-eremuko eta hezkuntza-eremutik kanpoko **kontaktuen azterketa** egingo da, **kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena** eginez, EAeko Zaintza eta Arakatzeko Sareak ezarritako



prozeduraren arabera.

- d) Ikastetxeek, eta, bereziki, bertako COVID arduradunek, kasu positiboen harreman estuak identifikatzen eta horien jarraipena egiten lagunduko eta parte hartuko dute, une horretan indarrean dauden Osasun Sailak ezarritako irizpideen arabera.
- e) egingo dute kontaktu estutzat identifikatutako ikasleen artean. Kontaktua horiek etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Publikoko agintariak ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.
- f) Kontaktuak aztertu eta harreman estutzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerek normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.

I ERANSKINA: PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

1) Segurtasun-tartea:

1,5mko segurtasun-tartea gordetzea pertsonen artean, ahal den neurrian.

2) Musukoa:

Maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da ikastetxean, bai eta jolaslekuan ere.

Institutuak musukoak izango ditu irakasleentzat eta ikastetxeko langileentzat. Ikasleek nork bere maskaraeraman beharko du, baina ikastetxeak maskara bat bermatuko die, ikastetxera sartzean maskara hori faltan duten ikasleei.

3) Eskuen higieena:

Ikastetxean sartzen den guztiak eskuak garbitu beharko ditu sarreran egongo diren xaboi edo desinfektatzaileekin. Ikasgeletan eta komunetan ere egongo da xaboi edo desinfektatzailea eta papera. Ikasle eta langileek higieena zaindu dezatela azpimarratuko da.

4) Aireztatzea:

Gelak maiz aireztatuko ditugu. Horretarako, zerrendak prestatu dira eta zehaztuta egongo da astero zeinikale arduratuko den 10 minututan leihoak zabalik egon daitezen. Jolas garaian ere irekita utziko da.

5) Gela bereziak (laborategia, gimnasioa, informatika-gelak, bikoizketak):

Ikasleek eskuak garbituko dituzte lanean hasi aurretik. Klase hasieran ikasleak arduratuko dira erabiliko duten materiala desinfektatzeaz beti ere irakaslearen gain begiradapean.

Aldagelak erabiltzeko irakasleak talde txikiak egingo ditu eta txandaka sartuko dira bertara.

6) Garbiketa eta desinfekzioa:

Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez, egunero egingo da.

7) Kontaktukopurua murrizteko:

Kokapen aldetik ikasleak banaka jarriko ditugu talde guztietan. Ikasle bakoitzak beti mahai bera erabiliko du, bikoizketetan ere bai.

Bikoizketetan ikasleek erabilitako mahaiak garbituko dituzte. Bikoizketetarako erabiltzen diren geletan, material guztia jasoa utziko dute ikasleek. Bakoitzak bere materialen txukuntasuna bereziki zainduko du.

Ikastetxean zehar desplazatzeko zehaztutako ibilbideak erabiliko dira. Ikasleek beraien eskola-materialakez dituzte konpartituko.

8) Sarrerak eta irteerak:

Modu mailakatuan sartuko dira iristen diren heinean, ikasgelak irekiak egongo dira eta ikasle bakoitza bere gelara joango da eta bere lekuan eseriko da.

Horretarako lehen orduan klasean duen eraikuntzaren atetik sartuko dira, eta ahal den neurrian ilaran joango dira bata bestearen atzetik.



Klase irteeretan antzera jokatuko da, hau da, azken klasean izan de eraikuntzako atetik aterako dira, eta ahal den neurrian ilaran joango dira bata bestearen atzetik.

Igogailua banaka erabiliko da, horretarako baimena duen ikasleen kasuan soilik.

9) Ordu aldaketak:

Ikasleak gela batetik bestera mugitu behar badira, korridorean zein eskaileretan, eskuinetik joango dira, eta markatutako ibilbideak jarraituko dituzte.

Ahal denean, txirrinak jotzen duenean hurrengo orduko irakaslea kanpoan egongo da itxaroten. Ikasleekezingo dute klase tartetean korridorera atera.

10) Jolas garaiak

Modu ordenatuan jaitsi eta igoko dira patiora, ahal den neurrian ilaran joango dira bata bestearen atzetik.

Horretarako klasean duten eraikuntzaren atetik irtengo dira eta klasea izango duten eraikuntzaren atetik igokodira (errekreora behar den materialarekin atera beharko dute).

11) Komunen erabilera:

Ikasleak ikastorduetan joango dira, ordu-aldaketetan ezingo da joan, pilaketak ekiditeko. Komunak banaka erabiliko dira, itxaronaldian pertsonen arteko distantzia mantenduz. Komuneko estalkia jaitsita duela botako da katetik.

Eskuak garbituko dira komunean sartu eta egon ondoren. Gelatik hurbilenean duten komuna erabiliko dute. Patio orduetan, ahal den neurrian, komunera joatea ekidingo da, jende pilaketarik eman ez dadin.

12) Jangela (B7 gela)

Ikasleek zein irakasleek B7 gelaren erabilpena egin dezakete ikastetxean bazkaltzeko. Jankideen artean 1,5mko distantzia bermatuko da eta horretarako, behar izanez gero, txandak egingo dira.

Erabiltzaileek, B7 gelan egongo den erregistro orria bete beharko dute eta erabiltzen duen espazioaren garbiketa egin beharko du, horretarako prest aurkituko dituen produktuekin

13) Bilerak:

Batzar edo bilera jendetsuak saihestuko ditugu.

Urruntze eta higiene-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldirik ez da egingo.

14) Ikastetxera etortzen diren bisitarien kopurua mugatu:

Ikastetxera etorriko diren pertsonen kopurua mugatuko da. Hori dela eta gurasoak ikastetxera etorri nahibadute, deitu eta ahal den neurrian hitzordua jasoko dute.

Lehentasuna emango zaio Inika eta telefono bidezko komunikazioari.

15) Administrazioko langileak:

Leihatilara hurbiltzen direnekin materialik ez dute partekatuko.



II ERANSKINA: FAMILIENTZAKO DEKALOGO-KONPROMISO AKORDIOA

Ikasturte hasiera honetan ezinbestekoa izango da ikastetxeetan segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea.

1. **Ikasleek ezin dute** ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
2. **Familiak lankidetzan arituko dira** ikastetxeak oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola: ikastetxeko seinaleak errespetatzea, maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, aretoak aireztatzea, bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea, eta abar. (Ikus prebentzio neurri orokorrak)
3. Ikasle batek sintomak baditu **ikastetxean**, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
4. Ikasleak sintomak baditu **etxean**, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
5. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.

Gogoraraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19ren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizialeguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez. Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun eta Hezkuntza Sailaren webgunean:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria/> (EUSKARAZ)

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/> (GAZTELERAZ)

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK:

GURASO/TUTORE LEGALAREN IZEN-ABIZENAK: _

SINADURA:

Onartzen dut hemen ageri den informazioa irakurri dudala eta funtzionamendu arau nagusiez informatua izan naizela

III ERANSKINA: AIREZTAPEN PROTOKOLOA


- a) Ikastetxeetan **kutsatzeko arriskua murrizteko**, aerosolen emisioa eta horiekiko esposizioa murriztu behar da. Honela murriztu daiteke emisioa:

Maskara ahoa, sudurra eta kokotsa estaltzeko moduan doitzuz.


Pertsonen arteko distantziari eutsiz.

Barruko espazioak aireztatu eta/edo araztu.

- b) Aireztapen **gurutzatua eta banatua da aukerarik onena**. Kontrako hormetako leihoak eta atek irekitzea eta, leiho bakarra asko ireki beharrean, irekidura bera ahalik eta puntu gehien artean banatzea: askoz hobe da 10 zm 8 leihoetan irekitzea 80 zm leiho bakar batean baino. Irekitze partzial horrek, gainera, konfort termiko onargarriagoa izaten lagun dezake, baldintza meteorologikoak txarrak badira. Irekiera handiagoek airez- tapen hobe ematen dute, baina konfort termikoa murriztu dezakete.



- c) **Aireztapenari etengabe eustea**, ez soilik klaseen artean aireztatzea, puntuan aipatutako irekitze partzialaren bidez. Ahal den neurrian, leihoak ahalik eta denbora gehien irekita mantentzen saiatuko gara. Arazoak daudenean, bai konfort termikoa dela bai kanpoko gehiegizko zarata, leihoak 20 minututik behin irekiko dira klase saioan zehar (klase hasieran, erdian eta amaitzerakoan)
- d) **Gune komunak**, korridoreak eta hallak ikasgeletako irteerak eta aire-sarrerak dira. Aireztapena izan behar dute kanpoaldearekin, airearen berriztatzaile gisa funtziona dezaten.
- e) **Jantokietako aireztapena**.(B7 gela) Jantokietan, kutsatzeko arriskua handiagoa da, eta, beraz, espazio horietan aireztapena hobetzeko beharra dago. Jantokietan irekiera handiagoak edo erabatekoak egin daitezke, eta beti aireztapen gurutzatua. Jantokian aldi berean dauden pertsonen kopurua murriztea ere neurri gomendagarria da.
- f) Ateak eta leihoak irekitzea **ikasleak iristean**, ikasgela alde aurretik berotuta dagoela. Ikasgelak gogor aireztatu baditugu irakasteguna amaitzean, ez da beharrezkoa gela hutsa aireztatzea goizeko lehen orduan, ez baitago aerosolengatik transmititzeko arriskurik, eta horrek konfort termikoa nabarmen galtzea ekarriko luke ikasleak bertara sartzen direnean. Ikasleak gelara iristen diren unean atek eta leihoak ireki behar dira; une horretara arte, gela berotu daiteke leiho eta ate itxiak dituzten ikasleak ez daudenean.



- g) **Ikasgela berreskuratzea. Aireztapen osoa atsedendaldietan.**



Atsedendaldietan (jolastokia, jangela edo beste batzuk) ikasgela osorik aireztatu daiteke, ikasgela berreskuratzea ere esaten zaiona. Gehiago aireztatu behar da, atek eta leihoak erabat irekiz 15-20 minutuz. Horri esker, airea ondo berritzen da eta hurrengo saioa kanpokoan antzeko hasierako CO mailekin hasten da. CO berritzeko abiadura ikasgelan karga termikoa galtzeko abiadura baino askoz handiagoa da. Ikaslerik gabeko atsedendaldietan atek eta leihoak irekitzean, CO kontzentrazioaren jaitsiera tenperaturaren jaitsiera baino askoz nabarmenagoa da.



IV. ERANSKINA: 2021-X-07ko AZKEN EGUNERAKETA

A.- Kontaktuak mugatzea:

- Transimisio txikiagoko egoeran gaudenez, **helduen arteko interakzioetan**, 1,2 metroko pertsonen arteko distantzia mantenduko da ikastetxearen barruan, maskara erabiltzea barne, distantzia edozein dela ere.
- Era berean, oro har, gutxienez 1,2 metroko pertsonarteko distantzia **mantenduko da ikasleen artean**, ikastetxean barrena mugitzen direnean edo gelatik kanpo daudenean.
- Derrigorrezko eta Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan, **Lan-talde Egonkorrak egin ahal izango dira ikasgelan** (3 edo 4 ikasleko talde egonkorrak), baina taldekatze horien arteko distantzia 1,2 metrotik gorakoa izan beharko da. Taldekatze horiek egonkorrak izango dira gutxienez 10 egun baino gehiagoko oporraldietara arte, eta, ahal dela, hautazko irakasgai berberak dituzten ikasleek osatuko dituzte.
- **Aire zabaleko jolasetan eta jardueretan** nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, betiere pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia errespetatzen ez bada.
- Ez da beharrezkoa izango **elikagaiak eta edariak hartzeko**, ezta kanpoaldean jarduera fisiko bizia egiten denean ere.

B.- Prebentzio pertsonaleko neurriak

- Maskararen erabilera:

- **Maskara nahitaez erabili beharko da**, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,2 metroko pertsonen arteko distantzia mantendu.
- Araudian araututako salbuespenen batengatik maskararik erabili ezin duten 6 urtetik gorako ikasleen kasuan, salbuespen hori medikuaren **ziurtagiri ofizialaren bidez edo Osakidetzako dagokion medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da**. Kasu horietan prebentzio- eta higiene-neurriak areagotuko dira eta kasu bakoitzari egokitutako konponbideak bilatuko dira.

C.- Antolaketa-neurriak

- Oro har, **irakasleen eta familien bilera guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira**, betiere higiene- eta aireztapen-neurriak gordez.

D.- Garbiketa eta aireztapena:

- Garbiketa eta desinfekzioa, gutxienez egunean behin, eta indartu egingo da erabilera-intentsitatearen arabera beharrezkoa den gunetan, adibidez, komunetan. Komunetan, egunean 2-3 aldiz izango da gutxienez, ohiko erabileraren eta erabiltzaile-kopuruaren arabera.